



ADIKZIOEI BURUZKO EUSKADIKO INKESTA 2017

Legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko monografikoa, kalamuaz beste

Laburpena

1. Azterlanaren justifikazioa

Legez kanpoko drogen kontsumoa asko errepikatzen den gizarte-arazo bat da, eta ondorio larriak eta sakonak izan ditu gure historiako garai jakin batzuetan: aurreko mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetako heroina-kontsumoaren izurriteak nahiz HIESaren hedapenean izan zuen eraginak, arrasto sakona utzi zuten gazteen belaunaldi oso batean; hamarkada bat geroago, substantzia sintetiko berriak agertu ziren, hala nola estasia —eta, oraintsuago, Ketamina—, eta iraganeko mamuak esnatu zituzten, are zentzu gehiago emanez, hori posible balitz, kontsumoaren monitorizazio-lanabesei.

Lan monografiko honen bidez, Euskadiko egoeraren ikuspegi orokor bat eman nahi da legez kanpoko substantzia psikoaktibo nagusien kontsumoari buruz (ez du kontuan hartzen Cannabis-aren kontsumoa, aldi bereko lan monografiko batek aztertu baitu); bizitzan zehar eta azken urtean kontsumoak izan duen prebalentziari buruzko irudi orokor bat marraztu nahi da, eta, horrez gainera, substantzia horiek kontsumitzen dituzten pertsona gehienen profilari buruzko aztarrenak eskaintzen dira. Alde horretatik, esan behar da, biztanleria guztiarekiko kontsumo-prebalentzia baxua duten substantziak direnez (biztanleen %1,9k azterlanean jasotako substantziaren bat kontsumitu bide du azken urtean), eta laginaren mugak direla-eta, ezinezkoa izan dela zenbait gai aztertzea, hala nola kontsumo-jarraibideak, kontsumitzaile-profilen arteko alde sozioekonomikoak edo arrisku-jokabide oso bazterrekoen identifikazioa.

Bestalde, ikerketak aukera ematen du euskal herritarrek legez kanpoko drogei buruz duten pertzepzioa eta arlo horretan interesgarriak diren politika-bide jakin batzuei buruz duten iritzia ezagutzeko ere. Substantzia hauen kontsumoak azken 25 urteetan izan duen bilakaera eskaintzea da azterketa monografikoaren indargune nagusietako bat.

2. Helburuak eta metodologia

Azterlanaren helburu nagusia izan zen legez kanpoko drogen (Cannabisa alde batera utzita) kontsumoaren prebalentzia eta hedapena ezagutzea, baita kontsumo horrek azken hamarkadetan izan duen bilakaera, gizarte-taldeen arabera banaketa eta herritarren pertzepzioa eta balorazioa ezagutzea ere. Guztira 10 substantzia desberdin aztertu ziren, honako hauek: anfetaminak (*Speed, Metanfetamina*), MDMA (*estasia, pilulak*), azidoak (*LSD, tripiak*), kokaina hautsean, kokaina basean (*Crack-a*), heroina, beste opiaceo batzuk, arnastekoak, perretxiko haluzinogenoak (*mongiak*) eta ketamina.

Monografiko honek 2017. urteko Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta erabiltzen du informazio-iturri gisa, zeina Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egiten baitu —lehen Euskadi eta Drogak Inkesta deitzen zitzaien—, eta Euskal Estatistika Planaren parte baita (2014/2017). Langile trebatuek etxean egiten duten inkesta bat da, eta helburua 15 eta 74 urte bitarteko EAEko biztanleen arteko hainbat adikzioaren prebalentzia ezagutzea da —izan substantziaren bat baliatzen duten adikzioak nahiz substantziarik gabeak—, baita adikzioarekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko pertzepzioaren eta balorazioaren berri jakitea ere. 1992ko lehen edizioaz geroztik, beste hamabi edizio egin dira, eta, gaur egun, hauxe da adikzioen arloko Estatuko inkestarik zahar eta sendoenetako bat.

Helburuak lortzeko bi analisi-metodo erabili dira, elkarren osagarriak.

- Alde batetik, legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako aldagai nagusien azterketa deskribatzaile bat egin da, baita herritarrek drogen kontsumoari buruz duten pertzepzioari eta gai horretan interesgarriak diren politika jakin batzuei buruz duten iritzia jasotzen duten aldagaiak ere. Azterketa deskribatzaile horren emaitzak direla medio, substantzien kontsumoaren prebalentziaren irudi orokor bat lortu ahal izan da, kontsumitzaileen profil soziodemografikoa eta kontsumo-jarraibideak ezagutu ahal izan dira, baita herritarrek drogen arloan dituzten jarrerak eta iritzia ezagutu ere. Populazio-talde desberdinen kontsumo-prebalentziak alderatzean, sexuaren eta adinaren arabera estandarizatutako prebalentziak kalkulatu dira. Estandarizazioa zuzeneko metodoaren bidez egin da, 2017ko urtarrilaren 1eko EINaren Errolda Jarraituaren Estatistikari dagokion Euskadiko biztanleria erreferentziazat hartuta.
- Beste aldetik, zenbait estatistika-metodo erabili dira, batetik, zenbait faktore jakinen eta legez kanpoko substantzien kontsumoaren arteko loturaren indarra aztertzeko, eta, bestetik, jakiteko ea biztanleria-taldeen arteko aldeak estatistikoki adierazgarriak gertatzen diren kontsumo-aldagai jakin batzuetan edo beste aldagai interesgarri batzuetan. Legez kanpoko drogen kontsumoaren inguruko arrisku-faktoreak aztertzeko, erregresio logistikoaren metodoa erabili da. Mendeko aldagai modelizatua legez kanpoko substantziaren baten bizitza osoko kontsumoa izan da (kalamuarena izan ezik), eta horrek aldagai soziodemografiko, jarrerazko eta kontsumo-aldagai jakinekin duen lotura aztertu da. Bestalde, biztanle-taldeen artean zenbait aldagai interesgarri dagokienez diferentzia adierazgarriak baden baloratzeko, Mann-Whitney eta Kruskal-Wallis edo khi-karratu estatistikak erabili dira, aztertutako mendeko aldagaiaren nolokotasunaren arabera (kategorikoa edo jarraitua).

3. Emaizta nagusiak

3.1. Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentzia orokorrak, sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren eta substantzia-motaren arabera

Egin diren kalkuluen arabera, 2017an, 204.693 pertsonak (EAEko biztanleen % 12,3k) bizitzako uneren batean kontsumitu zuen azterlanean aintzat hartutako substantziaren bat, eta 32.105ek (biztanleen % 1,9k eta noizbait kontsumitu zutenen % 15,7k) azken urtean kontsumitu zuten. Azken urtean kontsumitu zuten gehienek (hamarretik seik, gutxi gorabehera) hilean behin baino gutxiagotan kontsumitu zuten; eta hiru pertsonatik batek baino gutxiagok (3.954 pertsona), berriz, gutxienez astean behin kontsumitu zuten azken urtean.

1. koadroa. Legez kanpoko drogen kontsumoaren adierazleak (Cannabisarena izan ezik) Euskadin, 2017.

	Pertsonen kopurua	Prebalentzia-tasa	Jarraipen-tasak*
Bizitza osoan behin edo behin kontsumitzea	204.693	% 12,31	
Kontsumoa azken urtean	32.105	% 1,93	% 15,7
Hilean behin gutxienez	12.897	% 0,78	% 40,2
Astean behin gutxienez	3.954	% 0,24	% 30,7

* Kategoria bakoitzak aurreko kategoriaren aldean duen ehunekoa.


Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Egin ziren analisiek nabarmen berretsi zuten sexuaren arabeko eredu argi bat legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentzian: gizonetzkoek emakumezkoek baino gehiago kontsumitzen zuten, adina edozein izanik ere. Bizitza osoko kontsumoaren tasa, adinaren arabera estandarizaturik, 2,5 aldiz handiagoa zen gizonen kasuan emakumeen kasuan baino, eta duela gutxi kontsumitu zutenaren tasa, berriz, 4,8 aldiz handiagoa zen.

Era berean, analisiak erakusten zuen kontsumitzeko joera nabarmen bat zegoela adinaren arabera. 25 eta 34 urte bitarteko gazteak eta 35 eta 54 urte bitarteko helduak ziren bizitza osoko kontsumo-prebalentziarik handiena zutenak (% 18-19 inguru); azkenaldiko kontsumoaren kasuan, berriz, gazteen arteko prebalentzia (% 4,1), 35 eta 54 urte bitarteko helduena baino % 50 handiagoa zen ia (% 2,8).


Ikasketa-mailari dagokionez, ez zen alde handirik hauteman legez kanpoko drogen kontsumo esperimentalaren prebalentzian. Horrez gainera, egindako analisiek egiaztatu zuten ez zegoela lotura adierazgarririk aztertutako legez kanpoko substantzien bizitzan noizbehinkako kontsumoaren eta ikasketa-mailaren artean. Duela gutxiko kontsumoari dagokionez, kontsumoaren eta ikasketa-mailaren arteko lotura ere ez zen adierazgarria.

1. grafikoa. Bizitzan noizbaiteko legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentzia (kalamuarena izan ezik), sexuaren eta adin-taldearen arabera, 2017 (%)



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

2. grafikoa. Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentzia azken urtean (kalamuarena izan ezik), sexuaren eta adin-taldearen arabera, 2017 (%)



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Kalamuaz besteko legez kanpoko drogak bizitzan noizbait hartu zituzten euskal herritar gehienek kokaina (% 73,3) edo anfetaminak (% 68,7) kontsumitu zituzten. Haluzinogenoak (azidoa, LSDa, peiotea, perretxikoak, mongia) kalamuaz besteko legez kanpoko substantziaren bat probatu zuten hamar pertsonatik hiruk kontsumitu zituzten. Gainerako substantziak (cracka, opiazeoak, ketamina, arnastekoak) kalamuaz besteko legez kanpoko substantziaren bat inoiz probatu duten pertsonen %5ek baino gutxiagok kontsumitu zituzten. Hala, kokaina zen Euskadin gehiena kontsumitzen zen substantzia: ia 150.000 euskaldunek probatu zuten inoiz, eta 22.500 baino zertxobait gutxiagok kontsumitu zuten inkesta egin aurreko 12 hilabeteetan; horrek esan nahi du % 9ko prebalentzia dagoela bizitzan noizbait kokaina kontsumitzeko, eta %1,3koa azkenaldian kontsumitzeko. Ia-ia kokainaren parean beste estimulatzaile-multzo bat zegoen: anfetaminak eta metanfetaminak (Speeda edo anfetak lagunarteko hizkeran): 140.700 pertsonatik gora (biztanleen % 8,5) probatu zituzten noizbait, eta 16.200 (% 1) pertsona inguruk inkesta aurreko urtean.

2. koadroa. Legez kanpoko zenbait substantziaren bizitzan NOIZBAITEKO eta DUELA GUTXIKO kontsumoaren prebalentzia, 2017 (%)

	Kontsumo ESPERIMENTALA (bizitzan noizbait)		DUELA GUTXIKO kontsumoa (azken urtea)	
	Pertsonen kopurua	Prebalentzia gordina	Pertsonen kopurua	Prebalentzia gordina
Speeda, anfetaminak, metanfetaminak	140.705	% 8,46	16.202	% 0,97
MDMA, estasia, pastillak	60.615	% 3,65	7.090	% 0,43
Azidoa, LSDa, peioatea, meskalina	53.748	% 3,23	2.044	% 0,12
Kokaina hautsean	149.968	% 9,02	22.485	% 1,35
Kokaina-basea, Cracka	7.140	% 0,43	0	% 0,00
Heroina	10.597	% 0,64	0	% 0,00
Beste opiazeo batzuk	7.834	% 0,47	1.278	% 0,08
Arnastekoak	6.573	% 0,40	0	% 0,00
Perretxiko haluzinogenoak, mongiak	57.783	% 3,48	1.181	% 0,07
Ketamina	9.946	% 0,60	604	% 0,04


Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

3.2. Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera

Azken Adikzioen Euskadiko Inkesta egin zenetik, 2012an, gora egin zuen kontsumoaren prebalentziak. Gizonezkoen artean, bizitza osoan zeharreko kontsumoaren prebalentzia 5,7 puntu portzentual hazi zen, eta azkenaldiko kontsumoarena puntu portzentual bat. Emakumezkoen artean, gehikuntza askoz ere apalagoa izan zen, 1,8 puntu portzentualekoa bizitza osoan zeharreko kontsumoaren adierazlearentzat, eta 0,25 puntukoa azkenaldiko kontsumoarentzat.

2012tik 2017ra bitartean kontsumo-prebalentziek gora egin zutela ikusi zen arren, gaur egungo tasak —% 17,9 bizitza osoko kontsumoa eta % 3,21 oraintsukoa gizonezkoetan, eta % 6,8 eta % 0,7, hurrenez hurren, emakumezkoetan— ez ziren iristen oraindik inkestak aintzat hartzen zuen epealdiko balio maximoetara; hala ere, gizonezkoen kasuan, bizitza osoko prebalentzia-tasa hurbil zegoen 2004an heldu zen maximoaren % 18,9tik. Substantziei dagokienez, kokainak izan du azken bost urteotan hazkunderik handiena: bizitza osoko prebalentzia 3,55 puntu portzentual hazi zen, eta % 9ra iritsi zen (2004an, % 9,9ko maximo batera heldu zen).

2. grafikoa. Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebalentziaren bilakaera (kalamuarena izan ezik) Euskadin, 1992-2017 (%)



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

3.3. Euskadiren egoera Europako testuinguruan

Lehenik eta behin, kokainaren bizitza osoko kontsumoa kontuan hartuta, 2017an nabarmentzekoa zen Euskadi (% 10,4¹) Europako prebalentzia handieneko hiru lekuetako bat zela, Erresuma Batuarekin (% 10,7) eta Espainiarekin (% 10,3) batera. Substantzia honen azkenaldi honetako kontsumoa aztertuz gero, gizonezkoen prebalentzia, batez ere gizon gazteena (% 5), handienetako bat zen aztertutako herrialdeen artean [Danimarkaren (% 6,8), Erresuma Batuaren (% 6,6) eta Herbehereen (% 5,8) atzetik].

Bigarrenik, anfetaminak –bai bizitzan zehar, bai azkenaldian– kontsumitu zituzten biztanleen ehunekoa ere, Europako testuinguruan altua zen konparazioz. Bizialdi osoko kontsumoaren kasuan, prebalentzia % 8,5ekoa zen Euskadin (% 12,4 gizonezkoen artean), eta horrek prebalentziarik altueneko Europako herrialdearen parean jartzen gintuen ia-ia (Erresuma Batua, % 9,9), eta Espainiatik oso urrun (4). Substantzia honen azkenaldi honetako kontsumoari dagokionez, altuak ziren orobat euskaldunen tasak, eta gertuago zeuden iparraldeko herrialdeetatik (Danimarka, Alemania, Herbehereak) Europako hegoaldeko herrialdeetatik baino (Frantzia, Italia), azken hauetan prebalentzia baxuagoak baitziren.

¹ Aurreko orrialdean, % 9ko kokaina-kontsumoaren prebalentzia bat ematen da inkestan aintzat hartzen diren biztanleentzat (15-74 urte). 15-64 urteko biztanleen prebalentzia % 10,4 da, eta hori erabiltzen da erreferentzia gisa MCDDAk eskaintzen dituen Europako datuetan.

3. koadroa. Anfetaminen kontsumoaren prebalentzia azken urtean, sexuaren eta adin-taldean arabera, zenbait europar herrialdetan (%), 2017


		Biztanleria, guztira (15-64 urte)			Biztanleria gaztea, 15-34 urte		
		Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	Guztira	Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	Guztira
Alemania	2015	1,2	0,8	1,0	3,2	2,5	2,9
Danimarka	2017	1,1	0,4	0,7	2,2	0,8	1,4
Espainia	2017	0,8	0,2	0,5	1,3	0,4	0,9
Euskadi	2017	1,6	0,7	1,1	2,1	1,2	1,6
Frantzia	2017	0,5	0,1	0,3	1,0	0,2	0,6
Italia	2017	0,1	0,1	0,1	0,4	0,2	0,3
Herbehereak	2017	2,3	1,2	1,8	3,6	1,9	2,7
Erresuma Batua	2017	0,7	0,3	0,5	1,3	0,8	1,0
Suedia	2016	0,9	0,4	0,7	1,6	0,8	1,2

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017 eta EMCDDA.

3.4. Legez kanpoko drogen kontsumoen intentsitatea: bizitzan zehar izandako kontsumo-aldien zenbatekoa eta zenbat substantzia kontsumitu diren

Inkestan aintzat hartutako legez kanpoko substantziaren bat kontsumitu zuten pertsona gehienek (% 40 eta % 70 artean, substantziaren eta sexuaren arabera) 10 aldiz baino gutxiagotan kontsumitu zuten bizitzan zehar. Aldiz, 50 kontsumo-aldi baino gehiagoko kontsumitzaileen ehunekoak bizitzako unerik batean kontsumitu zuten biztanleen % 9 eta % 30 artekoa zen. Emakumezkoen kasuan, ez zen alde garrantzitsurik ikusten substantziaren arabera; gizonezkoek, ordea, anfetaminek eta kokainak bizitzan zehar 50 aldiz baino gehiagotan kontsumitzeko probabilitate handiagoa zuten: anfetaminak noizbait hartu zituzten gizonezkoen % 28,1ek 50 aldiz baino gehiagotan kontsumitu zuten bizitzan zehar, eta kokainaren kasuan, berriz, % 30,7 batek kontsumitu zuten.

4. grafikoa. Bizitzan inoiz anfetaminak, MDMA eta kokaina kontsumitu duen biztanleriaren banaketa, kontsumo-aukeren zenbatekoaren arabera, 2012 eta 2017 (%)



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Inkestaren emaitzek agertzen zutenez, aztertutako edozein substantzia bizitzan 20 aldiz baino gehiagotan kontsumitu zuten pertsonak ez ziren intereseko aldagai batzuetan kontsumo esperimentalagoa izan zutenak bezalakoak. Alde batetik, usadiozko kontsumitzaile horiek kontsumo-jarraibide biziagoak zituzten (azkenaldiko kontsumitzaileen %29,2 eta 3,9 batez beste kontsumitutako substantziak; aldian behingo kontsumitzaileak, berriz, % 6,2 ziren, eta 1,9 ziren batez beste kontsumitutako substantziak, hurrenez hurren).


Oro har, bizitzan noizbait kontsumitu zuten pertsonak 1 edo 2 substantzia probatu zituzten (batez beste 2,71; mediana, 2). Azken urtean kontsumitu zituzten pertsonak eskarmentu handiagoa zuten, eta, oro har, 4 substantzia kontsumitu zituzten (batez beste 4,2; mediana 4).

3.5. Legez kanpoko drogak kontsumitzen hasteko adina

Kontsumitzen hasteko batez besteko adina 21 urtekoa zen aztertutako substantzia guztientzat (21,3 gizonentzat eta 20,1 emakumeentzat, nahiz eta alde horiek ez ziren estatistikoki adierazgarriak). Maizenik, 16-17 urterekin (% 42,8) edota 18-19 urterekin (% 22,8) hasten zen kontsumoa.

Azidoak (19,9 urterekin) eta anfetaminak (20,6rekin) ziren lehenik kontsumitzen ziren legez kanpoko substantziak. Gainerako substantziarik hedatuena, oro har, 21 urteren ondoren kontsumitzen ziren: MDMA edo pastillak 21,3 urterekin eta kokaina 22,3 urterekin.

5. grafikoa. Legez kanpoko drogak (kalamua salbu) kontsumitzen hasteko adinaren batez bestekoa kontsumitzaile esperimentalentzat. Diferentziak sexuaren, adin-taldean eta ikasketaren arabera. Euskadi, 2017



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

3.6. Legez kanpoko drogen eragina pertsonen osasun-egoeran

Osasun-egoera konparatzean, ez zen alde nabarmenik hauteman inoiz kontsumitu ez zuten pertsonen eta noizbehinka kontsumitu zutenen artean, baina baziren alde adierazgarri batzuk azken horien eta bizitzan 20 aldiz baino gehiagotan substantziaren bat kontsumitu zutenen artean. Azken hauen ustez, osasuna hala-moduzkoa edo txarra zuten kasuen % 21,6an, eta noizbehinkako kontsumitzaileek, berriz, kasuen % 12,1ean.

Osasun mentalari dagokionez, 15-74 urteko euskal biztanleriak batez beste 75,2 puntu eskuratzen zituen osasun mentalaren indizean. Noizbait legez kanpoko drogak kontsumitu zituzten pertsonen artean puntuazioa 72,9ra jaisten zen (osasun mental txarragoa adierazten zuten), eta 20 aldiz baino gehiagotan kontsumitu zutenen artean 72,4ra. Alde horiek adierazgarriak ziren Kruskall-Wallis probaren arabera. Ikusten zenez, antsietate- edo urduritasun-sintomak zituzten pertsonen proportzioa zertxobait handiagoa zen kontsumitzaileen artean —batez ere 20 aldiz baino gehiagotan kontsumitu zutenen artean—, eta depresio-sintomak —adore-falta, gogorik eza edo tristura— maizago agertzen ziren legez kanpoko substantzien kontsumitzaileen artean.

4. koadroa. Osasun Mentalaren Inbentarioaren itemak (MHI-5). Legez kanpoko drogen kontsumoaren arabeko banaketa (%) (kalamua salbu), 2017

Azken lau asteetan ...	Kontsumitzaileen %	Bizitzan noizbait (N= 204.693)		
		Beti	<20 aldiz	>=20 aldiz
<i>Oso urduri egon zen</i>				
Beti, ia beti edo askotan	% 16,2	% 18,1	% 17,1	% 19,4
Batzuetan	% 24,3	% 26,4	% 28,5	% 23,3
Oso tarteka edo inoiz ez	% 59,5	% 55,6	% 54,4	% 57,2
<i>Hain jota sentitzen zen non ezerekin ez baitzen suspertzen</i>				
Beti, ia beti edo askotan	% 4,7	% 5,1	% 3,9	% 6,7
Batzuetan	% 9,4	% 11,2	% 10,7	% 11,8
Oso tarteka edo inoiz ez	% 85,9	% 83,8	% 85,4	% 81,5
<i>Lasai eta bake-bakean sentitu zen</i>				
Beti, ia beti edo askotan	% 65,8	% 57,9	% 57,4	% 58,
Batzuetan	% 25,5	% 29,5	% 31,4	% 26,9
Oso tarteka edo inoiz ez	% 8,8	% 12,5	% 11,3	% 14,4
<i>Goibelduta eta triste sentitu zen</i>				
Beti, ia beti edo askotan	% 4,3	% 6,4	% 6,3	% 6,5
Batzuetan	% 16,5	% 17,4	% 16,9	% 18,1
Oso tarteka edo inoiz ez	% 79,2	% 76,3	% 76,8	% 75,5
<i>Zoriontsu sentitu zen</i>				
Beti, ia beti edo askotan	% 78,2	% 73,6	% 77,8	% 67,5
Batzuetan	% 18,9	% 20,9	% 18,2	% 24,8
Oso tarteka edo inoiz ez	% 3,0	% 5,5	% 4,0	% 7,7

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

3.7. Arrisku-faktoreak legez kanpoko substantzien kontsumoan

Identifikatu ziren faktoreen artean, honako hauek izan ziren garrantzitsuenak: kalamua berriki kontsumitu izana (5etik 9ra aldiz handituko luke noizbait legez kanpoko beste substantzia batzuk kontsumitu izanaren arriskua); legez kanpoko drogen mundutik gertu egotea, halako moduan non, kontsumitzaile asko ezagutzen zituztenek besteek baino 3tik 7ra aldiz arrisku handiagoa baitzuten; eta, azkenik, egunero tabakoa kontsumitzeak eta drogak kontsumitzeak dakartzaten arriskuaren pertzepzio baxu batek areagotu egingo luke legez kanpoko substantziaren bat bizitzan noizbait kontsumitzeko arriskua, 2 eta 5 bitarte bakoitzak.

Hori dela-eta, nabarmentzekoa da hurbiltasunaren aldagaiak eragin handia duela legez kanpoko drogen arloan, kontsumo-arriskuari dagokionez. Legez kanpoko drogak kontsumitzen zituzten pertsona asko ezagutzen zituztela adierazi zuten inkestatuek 4,2 aldiz arrisku handiagoa zuten noizbait kontsumitu izateko; horrek adierazten du, gizabanakoen jarrerak alde batera utzirik, inguruneak eragin adierazgarria izan dezakeela legez kanpoko drogen kontsumoan, kontsumo esperimentalean behintzat.

Legez kanpoko substantziak kontsumitzeko arriskuaren eta ikasketa-mailaren arteko loturarik eza izan zen nabarmendu beharreko beste alderdi bat. Eraitza hori ez dator bat 2012ko Adikzioei buruzko Euskadiko Inkestan lortutakoarekin; izan ere, ikasketa-maila baxuak babes-efektua zuela kontsumoaren aurrean agertu zen inkesta hartan.

3.8. Legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko pertzepzio soziala Euskadin

Legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako gaietan gizarteak duen pertzepzioari dagokionez, hamar euskal herritarretatik ia seik uste zuten legez kanpoko drogen kontsumoa gizarte-arazo nahiko larria edo oso larria zela. Joera handiagoa zegoen legez kanpoko drogen kontsumoa larritzat jotzeko adin handiagoko pertsonen eta ikasketa-maila txikia zutenen artean: 25 urtetik gorako pertsonen % 60 inguruk jotzen zuen larritzat, eta 25 urtetik beherako gazteen % 45ek; era berean, ikasketarik ez zuten edo lehen mailako ikasketak zituzten pertsonen % 65ek uste zuen legez kanpoko substantzien kontsumoa nahiko larria edo oso larria zela, eta unibertsitate-ikasketak zituztenen % 52,3k.

Substantzia horiek kontsumitzeari dagokion banakako arriskuari dagokionez, euskal biztanleen % 80k eta % 90ek uste zuten legez kanpoko substantzia jakin batzuk kontsumitzeak, hilean behingo baino maiztasun txikiagoarekin bada ere, osasun-arazo nahiz bestelako aski edo asko ekar zitezakeela. Substantziei dagokienez, heroina eta substantzia haluzinogenoak (azidoak, LSD) jotzen ziren kaltegarrientzat: % 67,1ek uste zuen heroina hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzeak oso arazo larriak ekarriko zituela, eta % 65,5ek gauza bera pentsatzen zuen azidoak hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzeaz. Kokainaren eta estasiaren kasuan, zertxobait txikiagoa zen kontsumo horiek oso arrisksutzat jotzen zituztenen ehunekoa (% 58,5 eta % 56,8, hurrenez hurren).

Era berean, ikusten zen gizonezkoek emakumezkoek baino aski joera handiagoa zutela legez kanpoko substantziak kontsumitzeak –hala, kokaina, hilean behin edo gutxiago–, dakarren arriskua gutxiesteko (gizonen % 13-14k uste zuen estasia edo kokaina maiztasun horrekin kontsumitzea ez dela kaltegarria; emakumeen artean, berriz, % 6,5-7,5ek zuten iritzi hori). Gainera, arriskuaren pertzepzioa handitu egiten zen adinean aurrera egin ahala, eta,

substantzia gehienek kasuan, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak ziren kontsumoan arriskurik baxuena sumatzen zutenak. Azkenik, azpimarratu behar da kontsumitzailea izateak eragina zuela, handia gainera, substantzia horiek kontsumitzeak dakarren arriskuaren pertzepzioan. Hala, horrelako substantziarik inoiz probatu ez zuten pertsonen % 7-8k soilik uste zuen substantzia hauek hilean behin edo gutxiagotan kontsumitzeak arrisku txikia dakarrela, eta noizbait kontsumitu zutenen artean, berriz, ia % 30ekoa zen ehunekoa.

5. koadroa. Legez kanpoko drogen kontsumoari arazo GUTXI edo BATERE EZ egozten dioten herritarren proportzioa, ezaugarri soziodemografikoen arabera. Euskadi, 2017


	Estasia	Kokaina	Heroina	Azidoak
Sexua				
Gizonezkoak	% 13,5	% 13,7	% 7,1	% 8,7
Emakumezkoak	% 7,5	% 6,5	% 2,9	% 3,7
Adin-taldeak				
15-24	% 14,2	% 14,6	% 9,2	% 10,5
25-34	% 15,5	% 15,1	% 7,7	% 10,3
35-54	% 11,5	% 10,4	% 4,4	% 6,3
55-74	% 6,1	% 6,3	% 3,3	% 3,2
Ikasketa-maila				
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	% 8,8	% 7,8	% 4,5	% 4,4
Bigarren mailako ikasketak	% 10,9	% 11,0	% 5,4	% 6,8
Unibertsitate-ikasketak	% 11,5	% 11,1	% 4,9	% 7,0
Kontsumoa bizitzan noizbait				
Bai	% 28,2	% 29,8	% 10,6	% 16,5
Ez	% 8,0	% 7,3	% 4,2	% 4,8
Guztira	% 10,5	% 10,1	% 5,0	% 6,2%

Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

3.9. Drogen eta bestelako adikzioen arloko hainbat neurri emandako babesa

Arlo honetako zenbait politika-bide publikoren aurrean gizarteak duen jarrera dela-eta, azpimarratzekoa da, lehenik, euskal herritar gehienak (% 83,2) ez daudela ados substantzia guztien salmenta legeztatzeke aukerarekin. Eraitza horiek oso bestelakoak ziren kalamurako lortutakoen aldean; kasu horretan, EAeko biztanle gehienak –%52,6– adin nagusiko pertsonen egindako salmenta legeztatzearen aldekoak ziren. Gainera, orobat ikusi zen substantzia guztiak legeztatzeke aukerak indarra galdu zuela azken hamarkadan. 2004. urtean, hamar pertsonatik hiruk ia esan zuten neurri horrekin nahiko ados edo oso ados zeudela; 2017an, ehuneko hori % 14,1era jaitsi zen. Ildo beretik, nabarmen hazi zen politika-mota horrekin batere ados ez zeudela zioten herritarren ehunekoa: 2004an, % 45,2 ziren, eta, 2017an, % 58,6.

3. grafikoa. Droga guztiak legezatzearen alde edo aurka dagoen biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Euskadi, 2004-2017



Iturria: Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta, 2017.

Gai zehatzagoei helduz, adikzio-egoeran dauden pertsonen, ordezkapenezko beste tratamenduekin porrot egin dutenean, heroina sendagilearen aginduz emateko aukerari dagokionez, 2017an gizartearen zatituta zegoen: % 41,2k adierazi zuen oso ados edo nahiko ados zegoela, eta antzeko ehuneko bat –% 40,8– ez zegoen ados. Azpimarratu behar da gazteen artean gutxiago zirela heroinaren administrazio medikoaren alde egiten zutenak: 25 urtetik beherako gazteen % 27,4 bakarrik zegoen nahiko edo oso ados; eta, adibidez, 35 eta 54 urte bitartekoen % 44,9 eta 55 urtetik gorakoak % 40,9 zeuden ados. Bestalde, unibertsitate-ikasketak zituztenak bereziki aldekoak ziren (% 49,3 nahiko edo oso ados zeuden), eta ikasketak ez zituztenak edo lehen mailako ikasketak zituztenak bereziki kontrakoak (% 30,6 bakarrik zegoen neurri honen alde). Ildo horretatik, euskal gizarteak heroinaren administrazio medikoaren politika bati ematen dion babes nabarmen murriztu da azken urteotan: 2006an, hamar pertsonatik sei inguru ziren aldekoak; 2017an, berriz, hamarretik lau baino zertxobait gehiagora murriztu zen babes hori.

Kontsumo higienikoko edo ikuskaturiko kontsumo-lokalak irekitzearen inguruan ere ez zirudien adostasun handirik zegoenik euskal gizartearen, baina kasu honetan, herritarren gehiengoak – zehazki, % 55,8k– aldeko jarrera zuen. Gainera, zenbait biztanleria-taldek aldeko jarrera sendoagoa zuten: adibidez, unibertsitate-ikasketak zituztenen % 67,5 ados zeuden; 35 eta 54 urte artekoen % 62,3, eta kalamuaz bestelako legez kanpoko substantziaren bat noizbait kontsumitu zutenen % 70,7. Hala ere, adierazi behar da, halaber, kalteak murrizteko neurri horri ematen zaion babes oso nabarmen murriztu dela azken hamarkadan –2004. urtearekin alderatuta, ehuneko 25 inguru–; izan ere, urte hartan Euskadin lehen kontsumo-aretoak ireki zirenean, maximoa jo zuen aldeko jarrerak, % 80,3 baitziren halako lekuak irekitzearen aldeko posizioak zituzten euskal herritarrak.

Azkenik, kalteak murrizteko politika-bide orokorragoei buruz galdetuta, adibidez, informazio-ekintzak egitea kontsumoaren arriskuak murrizteko, adostasun handixeagoa zegoen: biztanleen % 71,3 neurri horren alde zegoen, % 40,1ek oso ados zegoela adierazi zuen, eta % 31,2k esan zuen nahiko ados zegoela. Esan behar da, aldi berean, kalteen murrizketaren era honetako formulazio jeneralistei emandako babes ahulduz joan dela azken hamarkadan ere (babes orokorra hamar puntu portzental gutxiago zen 2017an, 2002an baino).

4. Ondorioak

Kalamuaz bestelako legez kanpoko substantzien kontsumoari dagokionez, 2017an kontsumo-prebalentziak handiagoak ziren gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, aztertutako kategoria guztietan (kontsumo esperimentalak, azken urtean, hilean behingo maiztasuna baino baxuagoa eta astean behingo maiztasuna). Sexuen arteko aldeak areagotu egiten ziren kontsumo-prebalentziak berriagoak ziren heinean. Adinari dagokionez, 25 eta 34 urte bitarteko gazteak eta 35 eta 54 urte bitarteko helduak ziren bizitzan zehar kontsumo-prebalentziarik handienak zituztenak, eta azkenaldiko kontsumoa kontuan hartuz gero, lehenengoak nabarmentzen dira. Ikasketa-mailak, bestalde, ez dirudi inolako loturarik duenik kontsumoarekin. Kokaina eta anfetaminak ziren gehiena kontsumitzen ziren substantziak, eta, neurri txikiagoan, haluzinogenoak (azidoa, LSDa, peiotea, perretxikoak, mongiak). Gainerako substantzien kontsumoa oso-oso txikia zen.

Bilakaerari dagokionez, bizitzan zehar egindako kontsumoak gora egiten zuela ikusten zen, batez ere gizonezkoen prebalentzia handiagoak eraginda. Prebalentzia-mailak 2004an iritsitakoetara hurbiltzen ziren, orduan lortu baitzen maximo historikoa, azterlanak egiten direnetik.

Konparazioz, gehiena kontsumitzen diren bi substantziak erreferentziatzat hartuta (kokaina eta anfetaminak), Euskadi prebalentzia handieneko tokien artean zegoen European, bai bizitzan zeharreko kontsumoa, bai azkenaldiko kontsumoa kontuan hartuz gero. Anfetaminei dagokionez, prebalentzia, bizitza osoan zehar, estatuko gainerakoen bikoitza zela azpimarratzen zen azterlanean.

Halaber, ikusi zen lotura estua zegoela kontsumo-intentsitatearen eta bizitzan zehar kontsumitutako substantzien kopuruaren artean. Zehazki, maizenik kontsumitzen zuten pertsonak kontsumo esperimentalak edo noizbehinkakoa egiten zutenek baino bi aldiz substantzia gehiago probatzen zituzten.

Osasunaren alorrean, kontsumo handiagoa osasun mentalak okerrera egitearekin okertzearekin lotzen zen bereziki. Antzietatea eta urduritasuna bezalako sintomak, edo sintoma depresiboak, maizago agertzen ziren legez kanpoko substantzien kontsumitzaileen artean.

Era berean, legez kanpoko substantzien kontsumoaren arrisku-faktoreen artean, legez kanpoko drogen munduarekiko hurbiltasuna nabarmentzen zen. Bazirudien kontsumitzaileak ezagutzeak areagotu egiten zuela substantzia horiek kontsumitzeko arriskua, eta horrek esan nahiko luke, norbanakoen jarreretatik harago, inguruneak eragin nabarmena izan dezakeela kontsumoan. Era berean, 2012. urteko aurreko azterlanarekin alderatuta, 2017an baztertu egin zen ikasketa-maila baxuak izan zezakeen babes-efektua.

Substantzia hauen kontsumoari buruz gizarteak duen pertzepzioari dagokionez, gehiengoak adierazten zuen arazo sozial larria dela, osasunean ondorio kaltegarriak dituela eta zuzenean lotua dagoela bestelako arazo batzuekin. Interesgarria da nabarmentzea kontsumoren bat egiten zuten edo egin zuten pertsonen artean nabarmen murrizten zela arriskuaren pertzepzioa.

Azkenik, biztanleriak legez kanpoko substantziekin lotutako politika publikoen inguruan egindako balorazioari dagokionez, ikusten zen nabarmen murriztu zela programa edo eskuhartze desberdinei eskaintzen zitzaien babesak. Esate baterako, euskal gizarteak ia osorik heroinaren administrazio medikoaren alde egin zuen hasieran, baina gerora gizartea zatitu egin zen gai horretan. Era berean, kontsumo higienikoko edo ikuskaturiko kontsumoko lokalak irekitzea zela-eta, nabarmen murriztu ziren aldeko iritzia: 2004ko % 80,3tik 2017ko % 55,8ra. Azkenik, esan behar da ehuneko hamahiru puntu baino gehiagoan handitu dela azken 13 urteotan mota honetako substantziak legeztatzearen aurkako erabateko aurkakotasuna.